

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriaren Diagnostikoa

Laburpena

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia


observatorio del
tercer sector de bizkaia



Testuingurua:

2007-2008

Diagnostikoa: sektoreko erakundeen informazioa jasotzea eta egoera azaltzea



2008-2009

Balioespena eta proposamenak: informazioa sektoreko erakundeekin erkatzea eta sektorea hobetzeko orientazioak ezartzea

Diagnostikoaren helburuak:

- Hirugarren sektorearen kontzeptua zehaztea.
- Gaur egun Bizkaiko hirugarren sektorea osatzen duten erakunde guztiak identifikatzea.
- Euren gaur egungo errealitatearen erradiografia egitea, hirugarren sektoreko erakundeen ezaugarriei buruzko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa kontuan hartuta.
- Informazioa biltzeko eta eguneratzeko sistema edukitzea eta erakundeek eurek elikatzea, urteen joan-etorrian erkaketak egin ahal izateko.
- Hirugarren sektoreko erakundeen direktorioa eskaintzea, zenbait sailkapen interesgarritan oinarrituta.
- Informazio adierazgarria edukitzea, orientazioak aztertzeko eta ezartzeko.

Azterlanaren ohar metodologikoa:

TÉCNICA

- Cuestionario de autorrellenado por correo o via web

ÁMBITO

- Territorio Histórico de Bizkaia

UNIVERSO

- Organizaciones del Tercer Sector de Bizkaia (5.325)

MUESTRA

- 540

ERROR MUESTRAL

- +/- 4,08 con un nivel de confianza del 95,5%

PERIODO DE TRABAJO DE CAMPO

- De Enero a Octubre de 2007, se han recogido datos relativos al año 2006

TRABAJO DE CAMPO

- 31 registros de organizaciones distintos (11.435 unidades de registro)
- 7.335 envíos por correo y email
- 5.312 contactos telefónicos (1.246 organizaciones motivadas)

Galde-sorta:

- **Jarduera:** nortasun juridikoa, jarduketa-arloa, kokapen geografikoa, hartzaileak, jarduerak, erabiltzaileak eta parte-hartzaileak, bigarren mailako erakundeak, jarduketa-eremu geografikoa, ordezkariak eta egoitzak, printzipio zuzentzaileak, antzintasuna, kode etikoa.
- **Egitura:** gobernu-organoak, gizarte-oinarria, erakundearen tamaina/langile-kopurua, giza taldearen osaketa/boluntarioak, erakundearen tamaina/diru-sarreraren kopurua.
- **Giza baliabideak:** boluntarioak, soldatapeko langileak, langileen inplikazioa erakundearen.
- **Baliabide ekonomikoak:** kopuru ekonomikoa eta bilakaera, jabetzako lokalak, diru-sarreraren iturriak, gastuen ezaugarriak, likidezia-arazoak eta zorpeketa, onespenez, kontu-ikuskaritzak.
- **Kudeaketako edo kudeaketarako estrategiak:** plan estrategikoa, lanpostu adierazgarriak, jardueraren antolaketa eta ebaluazioa, giza baliabideei buruzko planak, zeharkako planak eta berdintasun-planak, euskara, ingurumena eta partaidetza, beste plan batzuk, kalitatea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, komunikazioa.
- **Harremanak:** bigarren mailako erakundeak, administrazio publikoak sustatutako partaidetza-ekimenak, inguruneke eragileekin garatutako lankidetzak.
- **Sektorearen etorkizunari buruzko zenbait intuizio:** etorkizuneko ikuspegia, ohiko arazoak, sektoreko erakundearen arteko ezagutza, gizartearekiko konfiantza, zenbait eragileren babesa, erronkak.

**Bizkaiko hirugarren sektorea
zer? nor? zenbat?**

Azalpen eragilea:

- **Gauzatutako** ekimenak
- **Abian** egon behar dira
- **Gizarte zibilak** sortutakoak izan behar dira, eta kudeaketa **autonomoa** zein independentzia izan behar dituzte, hirugarren sektorekoak ez diren erakundeei dagokienez: administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutzak, alderdi politikoak eta sindikatuak.
- **Irabazi-asmorik gabeak** izan behar dira eta, oro har, **borondatezkoak**.
- **Gizartean esku behar dute**, zentzu zabalean. Beraz, zenbait arlotan oinarrituta, gizarte-ingurunea hobetzea dute helburu: gizarte-ekintza, kultura, garapenerako nazioarteko lankidetzak, giza eskubideak, osasuna, aisialdia eta astialdia, lana, ingurumena... (kirolak izan ezik). Hori dela-eta, irekiak izan behar dira, hau da, kideen helburuekin bat datozen xedeetatik haratago joan behar dira, oro har.
- **Bizkaian** eta **Bizkaitik** garatu behar dute euren jarduerak.

Sailkapena:

NORTASUN JURIDIKOA
Elkartea
Fundazioa
Merkataritza sozietatea (laneratzeko enpresa)
Kooperatiba (laneratzeko enpresa)
Ekimen sozialeko kooperatiba
Kongregazio erlijiosoak
Beste batzuk

ESKUALDEAK, EUSTATen ARABERA
Arratia-Nerbioi
Durangaldea
Enkarterri
Busturialdea
Bilbo Handia
Lea-Artibai
Uribe-Butroi

ESKUALDEAK, ALDUNDIAREN ARABERA
Bilbo
Ezkerraldea/Enkarterri
Ezkerraldea
Barakaldo
Meatzaldea
Enkarterri
Ibaizabal Nerbioi
Durangaldea
Arratia
Basauri-Etxebarri-Galdakao
Nerbioi
Busturia-Uribe
Uribe
Busturialdea
Mungialdea-Txorierrri
Lea-Artibai

JARDUKETA-ARLOA
Garapenerako nazioarteko lankidetzak
Soziala
Kultura
Lana
Gizarte-ekintza
Ingurumena
Aisialdia eta astialdia
Osasuna
Giza eskubideak
Beste batzuk

MAKROZENBAKIAK...

Nekez identifikatzen
diren jarduerarik
gabeko erakundeek
osatutako unibertsoa
2.000-4.500

- 5.300 erakunde
- 20.000 langile
- 150.000 boluntario
- 3 milioi lagunek urtero harremanen bat dute erabiltzaile moduan, erakundeetako batekin, gutxienez
- 500 milioi euro urtean, Bizkaiko BPGren %1,56 2006an

A close-up, artistic photograph of a camera lens. The lens is the central focus, with its various elements and the white arrow-shaped aperture visible. The background is blurred, showing what appears to be a wooden surface. The text is overlaid in the center of the lens.

Nolakoak dira Bizkaiko hirugarren sektoreko erakundeak?

jarduera

- Batez ere, elkarteak dira



Nortasun juridiko erabiliena elkartearena da (%96), eta zenbait arlo bereizgarriak dira elkarten artean (soziala, astialdia...).

- Arloen artean, honako hauexek dira nagusi: kultura, soziala, astialdia eta gizarte-ekintza



Erakunde gehienak kultura-arlokoak dira (%43). Era berean, arlo sozialekoak (%18), astialdikoak (%12) eta gizarte-ekintzakoak (%10) ere badira ugariak.

- Batez ere, Bilbo Handian daude



Erakundeen %75 Bilbo Handian daude.

- Era guztietako taldeak atenditzen dituzte, baina batez ere, talde ahulenak



Erakundeen %53k garatutako jardueraren hartzaileak biztanleak dira oro har. Dena dela, lautik hiruk talde bereziak atenditzen dituzte, eta gehienak oso ahulak dira. Sektoreko erakundeek era guztietako taldeak atenditzen dituzte. Erakundeen erdiek talde desberdin bat baino gehiago atenditzen dute.

- Erabiltzaile eta parte-hartzaile asko dituzte



Jarduketa-arloaren arabera, batez besteko kopuruak 300 erabiltzaile (ingurumenean) eta 1.500 erabiltzaile (osasuna) artekoak dira.

jarduera

- Bigarren mailako erakunde gutxiago daude ingurumenean, lanean, arlo sozialean, osasunean eta kulturalan



Bigarren mailako erakundeen nortasun juridikoa elkarteara da, eta, batez ere, garapenerako lankidetzan, astialdian eta gizarte-ekintzan dihardute.

- Erdien jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoa baino handiagoa den eremu geografikoan garatzen da, baina %17k baino ez dute EAEtik kanpo ere lan egiten



Erakundeen %28 tokian tokikoak dira (eskualdekoak, udalerrikoak edo beheragoko mailakoak, eta erakundeen %26ren jarduera Bizkaian garatzen da batik bat. Erakunde txikien artean, tokian tokikoak oso ohikoak dira.

- Euren batez besteko adina 15 urtekoa da



%7 sortu berriak dira (urtebeteko antzinatasuna). Ibilbide luzeeneko erakundeen artean, gizarte-ekintzakoak daude.

- Batez ere, printzipio etikoak kontuan hartzen dituzten arren, erakundeen %21 printzipio erlijiosoetan oinarrituta daude



Printzipio etikoetan oinarritutako erakunde gehienak astialdikoak eta gizarte-ekintzakoak dira, eta 10 urteko edo hortik gorako antzinatasuna dute.

- %16k kode etikoa dute. Erakundeen %70entzat ez da garrantzitsua



Gaur egun, erakundeen %10ek ez dute kode etikorik. Hala ere, garrantzitsua dela uste dute.

egitura

• **Gobernu-organoetan gizonak dira nagusi**



Patronatuko 10 batzordetatik 6tan eta zuzendaritza-batzordeen erdietan, gizonak dira nagusi. Nolanahi ere, erakundeetan bertan emakumeak dira nagusi.

• **Gobernu-organoetako kideak berritzeko zailtasunak dituzte**



Erakundeen erdietan, ez da kide berririk egon azken berriztapenean.

• **Erakundeen %10ek ordainsariren bat ordaintzen diote gobernu-organoko kideren bati**



Horrelako 4 erakundetatik 1en, batzordekideen erdiak baino gehiago zeregin bikoitzeko pertsonak dira (erakundeetan bertan jardueraren bat egiteagatik ordainsaria jasotzen dute, bai eta borondatezko karguagatik ere).

• **Zuzendaritza Batzordeen %22 astean behin biltzen dira gutxienez**



Maiztasuna txikiagoa da soldatapeko langileak daudenean. Gobernu-organoak maiztasun handiagoaz biltzen dira elkarrekin. Bileren maiztasuna oso handia da, bai eta tamaina ertain eta handiko zenbait erakundeetan ere. Gainera, astialdiko eta arlo sozialeko erakundeak dira batik bat.

• **Erakundeen %13k 10 bazkide baino gutxiago dituzte; eta %46k, 100 bazkide baino gehiago**



Erakundeen %2k 3 bazkide baino ez dituzte. Garapenerako lankidetzako, gizarte-ekintzako, arlo sozialeko eta osasuneko erakundeek bazkide gehien dituztenak dira.

egitura

- Azken 3 urteotan, gizarte-oinarria ez da erakundeen %52n handitu



Erakundeen %48n, bazkideen kopuruak gora egin du; eta %14en, behera egin du. Batez ere, ingurumenean, osasunean eta arlo sozialean handitu da; eta giza eskubideetan eta astialdian, gutxitu. Era berean, erakunde gazteenek bazkideak galdu dituzte.

- Hiru erakundetatik bik urtean behin egiten dute Batzar Nagusia



Elkarteen herenek ia-ia maiztasun handiagoaz biltzen dituzte bazkideak. Batzar Nagusien %2 maiztasun txikiagoaz biltzen dira, legearen arabera xedatutakoa kontuan hartu gabe.

- Erakundeek 44 lagun dituzte, batez beste



Erakundeen erdiek 10-50 lagun dituzte; eta %32k, 10 lagun baino gutxiago. Gizarte-ekintzakoek, giza eskubideetakoek eta osasun-arlokoek tamaina handiagoa dute; eta astialdikoek, kulturakoek, lan-arlokoek eta arlo sozialekoek, txikiagoa.

- Erakundeetako langileen artean emakumeak dira nagusi, boluntarioen zein soldatapeko langileen artean



Langileen %64 emakumeak dira batez beste. Boluntarioen %63 eta soldatapeko langileen %69, hain zuzen ere. Arlo gehienetan, %70 baino gehiago dira emakumeak. Giza eskubideetakoak, lankidetzakoak eta kulturakoak, ordea, batezbestekoaren azpitik daude.

egitura

- Erakundeen %66ko kideak boluntarioak dira batez ere. %22n, gainera, boluntarioak dira nagusi.



Boluntarioen zeresana handiagoa da elkarteetan eta arlo sozialean, kulturean eta astialdian.

- Aurrekontu txikiko erakunde asko daude, eta erakunde handi gutxi daude



Erakundeen %55ek 12.000 eurotik beherako aurrekontu dituzte, eta %18k baino ez dute 120.000 euro baino gehiago. Fundazioek elkarteek baino diru-sarrera gehiago dituzte. Zenbat eta langile gehiago eduki, orduan eta handiagoa da aurrekontua. Zenbat eta boluntario gehiago eduki, orduan eta txikiagoa da aurrekontua. Aurrekontu txikienak arlo sozial eta kulturekoak dira; eta handienak, garapenerako nazioarteko lankidetzakoak, gizarte-ekintzakoak eta lan-arlokoak.

Hiru aldagaiak euren artean daude lotuta. Era berean, jarduketaren eta euren guztien arteko lotura ere badago.

giza baliabideak

- Erakundeen %94k boluntarioak dituzte euren giza taldean



Erakundeek %6k ez dute boluntariorik. %25en, boluntarioen kopurua bat dator gobernu-organoetako kideen kopuruarekin.

- Erakundeko batez besteko boluntarioen kopurua 39 lagunekoa da. Dena dela, 6a ohiko zenbakia da; eta 14a, balio nagusia



%42k 10 boluntario baino gutxiago dituzte; eta %43k, 10-50 boluntario. Balio horiek, gainera, batezbestekoaren gainetik daude giza eskubideetan, garapenerako nazioarteko lankidetzan eta gizarte-ekintzan.

- Erakunde gehienetako boluntarioen kopurua ez da handitu azken hiru urteotan



%36n, gora egin du. %17n, behera egin du. %47n, ez da kopurua aldatu. Galera nabariagoa izan da astialdian, gizarte-ekintzan eta giza eskubideetan.

- 10 boluntariotatik 4k lantzean behin baino ez dute laguntzen



Boluntarioen %8k 10 ordu baino gehiago sartzen dituzte astean. %28k bi urte baino gutxiago daramatza erakundeetan.

giza baliabideak

- Boluntarioen %13k administrazioan eta kudeaketan parte hartzen dute



%41 jarduketaz edo erabiltzaileen atentzio zuzenaz arduratzen dira; eta %46, beste zeregin batzuez.

Soldatapeko langilerik gabeko erakundeetan, boluntarioen %30 kudeaketaz eta administrazioaz arduratzen da.

- Erakundeen herenek soldatapeko langileak dituzte. Gainerakoek langile boluntarioak baino ez dituzte



Bi herenek ez dute soldatapeko langilerik. Soldatapeko langilerik gabeko erakunde gehienak kulturakoak, arlo sozialekoak eta astialdikoak dira.

- Erakundeek 19 langile dituzte batez beste. Dena dela, bata zenbaki ohikoa da; eta 4a, balio nagusia



%38k soldatapeko 3 langile baino gutxiago ditu; %29k, 3 eta 10 artean; eta %25ek, 10 eta 50 artean. 4 erakundetatik batek kontratupeko langile bat baino ez dute. Sarritan, lanaldi erdiz lan egiten duen administraria da.

Batezbestekoaren azpitik, garapenerako nazioarteko lankidetzakoak, arlo sozialekoak, kulturakoak, ingurumenekoak, astialdikoak, osasun-arlokoak eta giza eskubideetakoak daude.

recursos humanos

- Erakundeen herenek soldatapeko langile gehiago dituzte azken hiru urteotan



%66k ez dute soldatapeko langilerik hartu, baina %7k baino ez dute langile-kopurua murriztu. Batez ere, lan-arloan, gizarte-ekintzan eta garapenerako nazioarteko lankidetzan handitu da langile-kopurua. Langileen %45ek bi urte baino gutxiago daramatzate erakundeetan.

- Soldatapeko hiru langiletatik bi jarduketa zuzenaz arduratzen dira



Soldatapeko langileen %21 kudeaketaz eta administrazioaz arduratzen dira, %7 artapeneko langileak dira eta %6k beste era bateko zereginak egiten dituzte. Soldatapeko langileek langile boluntarioek baino neurri handiagoan parte hartzen dute kudeaketa-arloko zereginetan.

- Kontratuen %29 lanaldi erdikoak dira eta iraupen-indizea %38 ingurukoa da



EUSTATen arabera, 2007an Bizkaian lanaldi erdia zuten okupatuena batez besteko proportzioa %12,6koa zen; eta batez besteko iraupen-indizea, %20,4koa.

- Zenbat eta kopuru ekonomiko handiagoa eduki, orduan eta kudeaketa zuzenerako eginkizun gehiago eskuordetzen dituzte gobernu-organoek



Erakundeen %52k gaur egun kontratatu dituzten langile gehienak erakundeko boluntarioak izan dira aldeaz aurretik.

Gobernu-organo askok jardueren antolaketan eta ebaluazioan parte hartzen dute.

giza baliabideak

- Zenbat eta langile gehiago eta kopuru ekonomiko handiagoa eduki, orduan eta gutxiago parte hartzen dute bazkideek



Erakundeen %61en, bazkideek nahikoa edo asko parte hartzen dute antolaketan eta ebaluazioan.

- **4 boluntariotatik 3k nahikoa edo asko parte hartzen dute antolaketan eta ebaluazioan (egonkortasunez)**



Nolanahi ere, zenbat eta soldatapeko langile gehiago egon erakundeetan, orduan eta txikiagoa da boluntarioen partaidetza.

- Gutxitan gertatu arren, soldatapeko langile batzuek ez dakite ezer edo oso gutxi dakite erakundearen xede eta helburuei buruz



Soldatapeko langileek jardueren antolaketan eta ebaluazioan duten partaidetza-maila oso handia da.

Erakundeen %3,4k adierazi dutenez, soldatapeko langileek ez dute behar besteko informaziorik helburuei eta xedeei buruz.

- Erabiltzaileen eta senideen partaidetza oso eskasa da



Erakundeen %51ren esanetan, erabiltzaileek inoiz ez edo gutxitan parte hartzen dute jardueren antolaketan, eta ehuneko %70ekoa da senideei dagokienez.

baliabide ekonomikoak

- Erakundeen %60ren aurrekontua handitu egin da: %39 batez beste, 2004tik 2006ra



Portzentaje-gehikuntza handienak ingurumeneko, kulturako, aisialdiko eta astialdiko eta gizarte-ekintzako erakundeetan eman dira.

- %13k baino ez dituzte euren jabetzako lokalak



Jabetzako lokalen edukitzak erakundearen antzintasunarekin du zerikusia. 20 urtetik gorako erakundeen artean, ehuneko bikoiztu egiten da.

- Erakundeek ez dute finantziario-iturri dibertsifikaturik



Erakundeen %21en diru-sarrera guztiak iturri bakar batetik datoz. Beste %28k bi bideren bitartez baino ez dituzte baliabideak lortzen. Erakundeen %19k 5 edo hortik gorako finantziario-iturriak dituzte. %16k ez dute baliabide-iturririk.

- Batez ere, kuoten eta dirulaguntzen bitartez finantzatzen dira



Dirulaguntzak diru-sarreren erdia baino gehiago dira sarritan. Arlo sozialeko eta gizarte-ekintzako erakundeek finantziario publikoarekiko menpetasun handiena dute.

- Gastuaren %24 kudeaketara eta administraziora doa, batez beste



Erakundeetako langile-gastuak %56koak dira.

baliabide ekonomikoak

- Herenek baino gutxiagoak likidezia-arazoak edo diruzaintza-tentsioak dituztela onartzen dute



Dirudienez, lotura handia dago finantziario publikoarekiko menpetasun-mailaren eta likidezia-arazoaren artean.

- Erakundeen %62k zorpean daudela diote



Erakundeen zorpeketa garbia %37koa da batez beste. Zenbat eta erakunde gazteagoak izan, orduan eta zorpeketa-maila handiagoa dute.

- Elkarteen %6 herri-onurakoak dira, eta erakundeen %24 entitate sozialak dira



Elkartek *herri-onurakoak* badira, *zerga-araubide berezian* sartzen dira eta nolabaiteko zerga-etekinak lortzen dituzte. Erakundeak *sozialak* badira, ez dute *BEZik* ordaindu behar.

- %30ek diotenez, kanpoko kontu-ikuskaritzak eskatu dituzte azken hiru urteotan



Ehunekoa %6koa da elkarteei dagokienez, eta %50era igotzen da, erakundeek 600.000 eurotik gorako aurrekontuak dituztenean.

kudeaketako edo kudeaketarako estrategiak

- Lau erakundetatik batek Plan Estrategiko idatzia duela dio



10 erakundetatik 6k Plan Estrategikoarekin zerikusia duten ekintzak egiten dituzte gutxienez. Neurri txikiagoan ezarri dutenak ingurumeneko, arlo sozialeko eta kulturako erakundeak izan dira. 100 lagunetik gora dituzten artean, bitik batek plan hori dute idatziz. Plana duten erakundeen proportzioa murriztu egiten da kopuru ekonomiko txikiagoa dutenen artean.

Dena dela, jarduera-kopuru handia duten erakundeen ehuneko adierazgarriak ez du oraindik plangintza-dinamizarik ezarri.

- %14k gerentzia daukate. Ehunekoa %44koa da, soldatapeko langileak dituzten erakundeak bakarrik kontuan hartzen badira



Kulturako edo arlo sozialeko erakundeetan, lagun gutxiago daude gerentzian eta era bateko edo besteko arduradun gutxiago daude.

- Erakundeen %17k administratzailea dute. Ehuneko hori %53koa da soldatapeko langileak dituzten erakundeetan



Erakundeen %72n, administratzailea baino ez dago kontratatuta.

kudeaketako edo kudeaketarako estrategiak

- Erakunde gehienek aldian-aldian antolatu eta ebaluatu ohi dute (%85)



Ehuneko txikieneko arloak *ingurumena* eta *osasuna* dira.

- Zenbait erakundeak zailtasunak dituzte, komunikazio-estragiekin, giza baliabideekin, kalitatearekin... zerikusia duten ekintzak sistematizatzeko, nahiz eta erakundearentzat garrantzitsuak direla jakin



Planik ez duten erakundeek ez diete hainbesteko garrantzirik ematen planei.

Lotura duten ekintzak garatzen dituzten erakundeen ehuneko plan idatzia dutenena baino handiagoa da.

- Ezarpen handirik ez duten planen artean, Marketin Plana, Ingurumena Kudeatzeko Plana eta Partaidetza Plana nabarmentzen dira



Honako hauexek ezarpen handia dute: Prestakuntza Plana, Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana, Barruko Komunikaziorako Plana, Informazioa Kudeatzeko Plana, Berdintasun Plana eta Borondatezko Lana Kudeatzeko Plana.

kudeaketako edo kudeaketarako estrategiak

- Gutxi gorabehera, erakundeen %6k kalitate-ziurtagiriren bat dute



%10ek Kalitate Plan idatzia dute, eta %13k lotura duten ekintzak garatzen dituzte. Tamaina handiagokoen tasak handiagoak dira.

Erakundeen %4k kalitate-arduraduna dute. ISO 9001 ziurtagiri ohikoena da.

- Sektoreko hamar erakundetatik, zazpik, gutxi gorabehera, tresna informatikoak erabiltzen dituzte sarritan



%28k web orria erabili dute inkestan parte hartzeko. %63ren esanetan, posta elektronikoa erabili ohi dute, eta %39k web orria dute.

200.000 eurotik gorako aurrekontua duten erakundeen artean, %90ek e-posta erabiltzen dute. 12.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenen artean, ordea, %56k baino ez dute erabiltzen.

kudeaketako edo kudeaketarako estrategiak

- Ia-ia, bost erakundetatik lauk jardueren urteko memoria egiten dutela diote. Dena dela, %14k baino ez dute urtean behin baino gehiagotan ematen euren kontuei buruzko informazioa



Ohitura handiagoa dago gizarte-ekintzako, osasun-arloko eta garapenerako lankidetzako erakundeen artean.

- Erakundeen %80k komunikazio-kanpainaren bat egiten dute, baina %37k baino ez dute ohikotasunez egiten



Batez ere, erakundearen berri ematea eta biztanleak sentsibilizatzea dute helburu. Beraz, gutxitan erabiltzen dira fondoak biltzeko.

Hona hemen kanpainetan erabili ohi diren euskarriak: kartelak, liburuxkak, toki-prentsa eta hitzaldiak.

Tokian tokitik gorako irratia edo prentsa eta web orri instituzionala gutxitan erabiltzen dira.

Lankidetzako eta osasun-arloko erakundeek ohitura handia dute; kulturakoek, ingurumenekoek eta astialdikoek, ez, ordea.

harremanak

- Inkestatutako erakundeen erdiak bigarren mailako erakunderen bateko kideak dira



Bigarren mailako erakunde edo sareetako kideak diren erakundeen %37 bat baino gehiagotako kideak dira.

Ez dago lotura argirik erakundeen tamainaren eta horrelako ekimenekin bat egiteko erabakiaren artean.

- Erakundeen %37k kontseilu edo planen batean edo administrazio publikoak sustatutako antzeko ekimenen batean parte hartu dute



Ez dago inolako loturarik erakundearen tamainaren edo jarduketa-arloaren eta horrelako ekimenetan parte hartzeko erabakiaren artean.

- Batez ere, erakundeak administrazio publikoarekin eta hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin daude harremanetan



la-ia erakundeen herenek diote enpresekin inolako elkarlanik ez dutela.

%15ek onartu egiten dute hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin lan egiten ez dutela.

harremanak

a) Lokalak administrazio publikoak eta erakunde erlijiosoek lagatzen dizkie, batez ere

c) Batez ere, erakundeek sektoreko beste erakunde batzuetara jotzen dute aholkularitza bila, bai eta administrazio publikora eta enpresetara ere

e) Administrazio publikoak eta sektoreko beste erakunde batzuek erakundeen zerbitzuak kontratatzen dituzte. Erakundeek, ordea, enpresak kontratatzen dituzte eta, ondoren, irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk

b) Erakundeetako aholku-organoetan eta gobernu-organoetan, administrazioko, sektoreko beste erakunde batzuetako eta, neurri txikiagoan, erakunde erlijiosoetako ordezkariak daude

d) Finantziazio-iturri nagusia administrazio publikoak eta gizarte-ekintzak dira eta, neurri txikiagoan, enpresak

f) Informazioa eragile guztiekin trukatu arren, hirugarren sektoreko erakundeek beste eragile batzuei ematen dieten baino informazio gehiago jasotzen dute, antza

sektorearen egoerari buruzko zenbait intuizio

- %82ren ustez, gaur bezain zaila edo zailagoa izango da hurrengo bost urteetan euren helburuak betetzea



Zailtasunak handiagoak dira *aisialdiko eta arlo sozialeko* erakundeetan. *Erronkak* aipatzen dira...

- %78ren esanetan, Bizkaiko hirugarren sektoreko erakundeek ez dute elkar ezagutzen edo oso gutxi elkar ezagutzen dute



10etik behera lagunekoak oso-oso ezezagunak dira, bai eta bigarren mailako erakundeetako kideak ez direnak eta *kultura, gizarte eta ingurumen* arlokoak direnak ere.

Arrazoiak: *erakundeei buruzko informaziorik eza, era guztietako jarduera ugari, denbora-falta edo prestasun-falta...*

- Erdien iritziz, gizarteak konfiantza nahikoa edo handia du erakundeetan. Beste erdiek, ordea, aurkakoa uste dute



Arrazoiak: *informaziorik eza, informazio zatikatuak edo zehaztugabeak...*
Ezkorrenak, *lan-arlokoak eta arlo sozialekoak*; eta baikorrenak, *gizarte-ekintzakoak eta osasun-arlokoak*.

- Hona hemen balioespen handiena duten babesak: BFA, sektoreko erakundeak eta udalak



Aurrezki-kutxetako, Eusko Jaurlaritzako eta erakunde erlijiosoetako *gizarte-ekintzak sailkapeneko* postu nagusietan daude. Enpresek eta Estatuko Administrazio Orokorrak emandako babesak oso-oso txikia da. Sindikatuak eta alderdi politikoak dira babes gutxien ematen dietenak.

Sektorearen egoerari buruzko zenbait intuzio

- Honako hauexek izango lirateke erronkak:

1. **Komunikazioa**: jakitera ematea, herritarrekin harremanetan jartzea, beste erakunde eta eragile batzuekin komunikatzea, gardentasuna eskaintzea...

2. **Kudeaketa estrategikorako ereduak eta profesionalizazioa**: IAGE - enpresa konbinazioa...

3. **Finantziario-iturrien dibertsifikazioa**: independentzia

4. **Lankidetzaren administrazio publikoarekin**: hitzarmenak, finantziario egonkorra, menpetasun-harremanik eza...

5. **Gizarte-aldaketetarako egokitzapena**

6. **Gizarte-sentsibilizazioa**: partaidetzaren sustapena, militantzia...

7. **Kalitatea**: zorroztasun handiagoa, lehiakortasun handiagoa, emaitzen azalpena, hartzaileenganantzko orientazioa...

8. **Jarduera kritikoa**: mundu hobea lortzea

9. **Koordinazioa**: erakundeen eta eragileen arteko lankidetzaren

10. **Sektorearen nortasuna**: berriro zehaztea, helburuak ezartzea, batasun-irudia ematea, sendotzea, bat egitea, kohesionatzea...

Eranskina

	LANGILEAK	BOLUNTARIOAK	KOPURU EKONOMIKOA
Garapenerak o nazioarteko lankidetzak	Batez ere, 10 eta 50 lagun arteko erakundeak dira. Edonola ere, 50etik gorako zeresana adierazgarria da.	Erakunde gehienetan, %75 boluntarioak dira gutxienez.	Datuak oso barreiatuta daude: oso erakunde xumeak, hain xumeak ez diren erakundeak eta aurrekontu handiak dituzten erakundeak daude.
Soziala	Batez ere, 50etik behera laguneko erakundeak dira. Dena dela, 10etik beherako zeresana ere oso handia da.	Ia-ia guztietan, boluntarioak baino ez daude.	Ia-ia erakunde guztiek dituzte 12.000 eurotik beherako aurrekontuak.
Kultura	Batez ere, 50etik behera laguneko erakundeak dira. Hala ere, 10etik beherako proportzioa oso handia da.	Gehienak boluntarioen erakundeak dira. Dena dela, gutxi batzuetan %50 baino gutxiago dira boluntarioak.	Erakunde gehien aurrekontua 12.000 eurotik beherakoa da.



	LANGILEAK	BOLUNTARIOAK	KOPURU EKONOMIKOA
Lana	Erakunde asko ertainak dira, 10-15 lagunekoak. Erakunde handiagoen eta txikiagoen zeresana antzekoa da.	Banaketa oso antzekoa da boluntarioz osatutako erakundeen eta soldatapeko langilez osatutako erakundeen artean.	Erakunde gehienen aurrekontuak ertainak edo handiak dira, 120.000 eta 300.000 euro artekoak.
Gizarte-ekintza	Erakunde txiki, ertain eta handien ordezkariak antzekoa da.	Boluntarioek zeresan desberdina dute erakundeetan. Gehienetan, ordea, %50 boluntarioak dira.	Erakunde batzuen aurrekontuak oso murrizak dira. Dena dela, kopuru ekonomiko ertain eta handiko erakundeak ere badaude. Talde guztiek zeresan adierazgarria dute guztizkoan.
Ingurumena	Erakunde asko txikiak dira, 10etik behera lagunekoak. Dena dela, erakunde ertainek eta handiagoek ere badute zeresanik.	la-ia gehienetan, %75 dira boluntarioak.	Gehienek 12.000 eurotik beherako aurrekontuak dituzten arren, batzuek 60.000 euro baino gehiago erabiltzen dituzte.



	LANGILEAK	BOLUNTARIOAK	KOPURU EKONOMIKOA
Aisialdia eta astialdia	Erakunde ertainak eta txikiak, batez ere. Handiek ia-ia ez dute ordezkartzarik.	Gehienak boluntarioen erakundeak dira, eta beste askotan %75 dira boluntarioak. Hala ere, erakunde gutxi batzuetan soldatapeko langileak dira nagusi.	Erakunde gehienek ez dute 60.000 euro baino gehiago mugitzen.
Osasuna	Erakunde gehienak ertainak eta txikiak dira. Handiek ez dute ordezkartzia adierazgarririk.	Erdiak boluntarioen erakundeak dira. Gainerakoetan, ordea, boluntarioek zeresan desberdina dute.	Erakunde askok ez dute 60.000 euro baino gehiago mugitzen. Hala ere, kopuru ekonomiko handiagoko erakundeak daude.
Giza eskubideak	Lautik hiruk 10-15 lagunek osatzen dituzte. Gainerakoak handiagoak dira.	Erakunde gehienetan, boluntarioek zeresan handia dute. Dena dela, zenbait erakundetan soldatapeko langileak dira nagusi.	Erakunde gehienek aurrekontuak 12.000 eta 60.000 euro artekoak dira.



PLANAK U	Bai, idatziz zehaztutakoa	Idatziz ez, baina lotura duten ekintzak garatzen ditugu	Idatziz edo lotura duten ekintzen bidez	Ez	Ez dute, baina garrantzitsua iruditzen zaie %
Plan Estrategikoa	25,7	33,7	59,4	40,6	14,6
Prestakuntza Plana	22	26,4	48,4	51,6	19,1
Barruko Komunikaziorako Plana	13,2	31,9	45,1	55	14,1
Informazioa Kudeatzeko Plana	14,7	28,2	42,9	57,1	12,3
Kode etikoa	16	26,6	42,6	57,4	11,3
Berdintasun Plana	13,5	28,7	42,2	57,8	12,6
Kanpo Komunikaziorako Plana	10,9	30,6	41,5	58,5	18,4
Borondatezko Lana Kudeatzeko Plana	16,3	24,4	40,7	59,3	17,8
Euskara Plana	11,1	22,6	33,7	66,3	15,6
Baliabide Materialen Plana	8,2	24,1	32,3	67,7	10,5
Partaidetza Plana	7,1	25,1	32,2	67,8	16,3
Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana	20,2	7,6	27,8	72,2	5,1
GGBB Kudeatzeko Plana	10,7	15,8	26,5	73,4	10,3
Ingurumena Kudeatzeko Plana	5,6	19,4	25	75	10,6
Kalitate Plana	10	12,9	22,9	77,1	9,8
Marketin Plana	4,1	14,1	18,2	81,8	9,3
Beste plan batzuk	4,6	7,5	12,1	87,9	0




JARDUKETA-ARLOA	Azken UNIBERTSOA	Azken UNIBERTSOA %
Garapenerako nazioarteko lankidetzak	201	3,81
Gizarte-arloa	958	18,16
Kultura	1304	24,73
Artea eta kultura	976	18,51
Lana	91	1,73
Gizarte-ekintza	542	10,28
Ingurumena	249	4,72
Astialdia	609	11,55
Osasuna	253	4,80
Giza eskubideak	67	1,27
Beste batzuk	24	0,46
Ezaguna guztira	5274	100,00
Zalantza ed/ee	51	-
GUZTIRA	5325	-

Soziala + Lana + Osasuna + Gizarte-ekintza = %34,97

Lana + Osasuna + Gizarte-ekintza = %16,81



Jarduketa-arloa. LAGINA



ZENBAIT ERAGILEREN BABESA	Nahikoa edo asko	Ezer ez edo gutxi	Guztira
Bizkaiko Foru Aldundia	%45,5	%54,5	100
Hirugarren sektoreko erakundeak	%43,5	%56,5	100
Udalak	%40,0	%60,0	100
Gizarte-ekintzak	%39,8	%60,2	100
Eusko Jaurlaritza	%38,4	%61,6	100
Erakunde erlijiosoak	%30,1	%69,9	100
Estatuko administrazio orokorra	%9,3	%90,7	100
Enpresak	%4,8	%95,2	100
Alderdi politikoak	%3,5	%96,5	100
Sindikatuak	%2,7	%97,3	100



NORTASUN JURIDIKOA	Azken UNIBERTSOA	Azken UNIBERTSOA %
Elkartea	5083	95,94
Fundazioa	164	3,10
Merkataritza-sozietatea edo kooperatiba laneratzeko enpresa	22	0,42
Ekimen sozialeko kooperatiba	11	0,21
Kongregazio erlijiosoak	17	0,32
Beste batzuk	1	0,02
Ezaguna guztira	5298	100
Zalantza ed/ee	27	
GUZTIRA	5325	



ORGANIZACIONES POR CADA 1.000 HABITANTES

- más de 5
- entre 4 y 5
- entre 3 y 4

